

# ALTXORRA BUNKERREAN

## Gerra Hotzaren garaian 15.000 milioi marko balio zuen bunkerra

 **HISTORIA** / GAUR8

**C**ochem herrixkako biztanleek ez zuten susmatu ere egiten euren oinen azpian aspaldi lurperatutako altxor bat zutela.

Alemaniak erabateko sekretupean gorde zuen, sobietarrak jabetu ez zitezen, Gerra Hotzaren garaian lagungarri gerta zitekeen diruaren sorrera. Operazioaren kodea: BBK II. Alemaniako Errepublika Federaleko (BRD) banku zentralak, Mendebaldeko Alemaniak, txanpon berri horretan milioika billete jaulki eta aterpe antinuklear batean gorde zituen.

Petra Reuterren begiek dir-dir egiten dute espioien elebe-

rri baten istorioa ematen duena kontatzean: «Diru kopuru itzela sortu zen hemen, 15.000 milioi marko», 1964 eta 1988 artean. Hirurogei urteko emakumea da gaur egun 1.500 metro karratuko lurpeko bunkerren jabea.

Garai hartako Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko tentsio geopolitikoa paroxismoa iristen zen. Zer gertatuko litzateke Alemaniaren diru sistemari eraso egingo balio-te? BBK II erreskate dibisa joan sartu behar zen.

Bunkerretik irteteko eskailera sekretua, Cochemeko Bundesbank banketxearen museoan.  
Ina FASSBENDER | AFP

«Alemaniarren ekonomia kaltetzeko asmoz Altxairuzko Oihaletik diru faltsua sartuko ote zen beldurrak» operazio zoro hau suspertu zuen seguru- enik, Bernd Kalthenhäus- rrek, Sarre eta Renania-Palati- natuko (Cochem eskualde horretan dago) Bundesbanke- ko bulegoko presidentear, azaldu duenez.

### ESPIOIEK SUSMORIK EZ

Halako erasorik gertatuz gero, banku zentralak «bi astean or- dezko serieak Errepublikako txoko guztietan banatzeko prest egon nahi zuen», Reute- rrek dioenez.

Berak eta senarrak 2016an erosi zuten bunkerra, museo bat egiteko asmoz, eta ez zu- ten uste gaurkotasunak ho- rrela harrapatuko zituenik.

Errusia eta Ukraina arteko gerraz geroztik, «gure inguru- ko jendeak bunkerrean la- rrialdietarako lekuri ba ote den galdetzen digu», dio Reu- terrek. Hirurogei urte atzera jauzi egitea iruditzen zaio: hi- rugarren mundu gerraren mamua, arrisku nuklearra... «Beldurrak berdinak dira».

Burdinazko ate astunaren atzean, L formako aterpe pa- ramilitarra dago. Pasabide lu- zeekin, deskontaminazio gan- berekin, telegrafoz hornitutako bulegoekin eta disko birakaria duten telefo- noekin, Gerra Hotzeko giroa gogorarazten die bisitariei.

Areto nagusiak hamabi ge- laxka burdinaztatu ditu, eta 25 urtez bertan gorde dituzte sabairaino pilatuta ia 18.300 kutxatan bildutako milioiak, 10, 20, 50 eta 100 billeteetan.

Billete paraleloen aurreal- deak orduan zirkulazioan zi- ren markoen antza zuen; atze- alde oso desberdina zen.

Cochemeko bunkerreko





«Alemaniarren ekonomia kaltetzeko asmoz  
Altzairuzko Oihaletik diru faltsua sartuko ote  
zen beldurrak» bultzatu zuen seguruenik  
operazio zoro hau

txanpon ekoizpenak urteetan iraun zuen, ehunka kamioiren joan-etorriak gorabehera, inork ezer sumatu gabe, ez biztanleek ez Ekialdeko Alemaniako Stasiko espioiek.

«BERNARD» OPERAZIOA

Esan beharra dago Alemaniako Banku Federalak estaldura ezin hobea zuela: bunkerra zegoen eraikina ofizialki bere langileentzako prestakuntza eta atsedenerako barne zentro bat zen, eta herriko bizitegi guzietan zegoen.

Cochem, Belgikako eta Luxenburgoko mugetatik ehun kilometrora kokatua, Altzairuzko Oihala urrun izateagatik aukeratu zuten. Inbasioa ger-

tatuz gero, ez zegoen Errusiako tankeen eskura. Magal batean eraikita dagoenez, «eraso nuklearrik izanez gero, haranaren gainetik igaroko zen talka-uhina, eta alde horretatik erresistentzia hobea zuelako baliatu zuten egitura», Petra Reuterren esanetan.

«Herritarrek harriturik geratu ziren altxor hau aurkitzean, euren etxeen azpian hainbat denboraz ezkutatuta egon dela jakitean», adierazi du Wolfgang Lambertzek, Renania-Palatinatuko 5.000 biztanleko herriko alkate ohiak.

Historiako ikasgaiek ere, zailantzarik gabe, garrantzia izan zuten proiektuaren diseinuan: Naziek Bigarren Mundu Ge-

Hirurogei urte atzera jauzi egitea iruditzen zaio  
egungo jabea den Petra Reuterri: hirugarren  
mundu gerraren mamua, arrisku nuklearra...  
«beldurrak berdinak dira»

rran «Bernhard» operazioa sustatu eta kontzentrazio esparruetako presoak libera esterlina faltsuak egitera behartu zituzten, Ingalaterra gainezkatzeko helburuarekin.

Hortik eskarmentua hartuko zuten alemaniarrek operazio hau abiatzeko.

Frankfurteko Bundesbankeko kutxetan gordeta dauden erreserbak ere kontuan hartuz, guztira moneta paralelo honetako 25.000 milioi inprimatu

ziren. Gutxi gorabehera 1963an zirkulazioan zeuden billeteen kopuru bera.

Azkenean, txatal guztiak biltegitik atera zituzten, birringailutik pasarazi, eta, ondoren, geratu ziren haritxoak 1988-1989 aldian erre zituzten, Berlingo Harresia erori zen urtean.

Gaur egun horrelako proiektu bat egitea baztertzeko du Bundesbankeko arduradunak. «Larrialdietarako dibisa sortu gaur? Ez luke zentzurik izango: diru faltsu gutxiago dago zirkulazioan –azpimarratu du Kaltenhäuserrek–, imitazioak asko zaildu dira eta eskudirutan egiten diren ordainketak ez dira hain ugariak».

Dibisa paraleloaren irudiak.  
Ina FASSBENDER | AFP

